

URBIDAK / AKUEDUCTOAK



Segobia'ko ur-bidea (Akueduktoa).

Erromatarrak ia dana artu eben Grezia´tik. Eurak gudarako eta legeak egiteko ziran trebeak.

Ba-dagoz oroigarri diran eraikuntza edo monumentu batzuk: Esaterako arkuak, uguztegi edo baiñu-lekuak, bideak, irudiak eta abar.

Baiña erromatarrak itzi euskuen eraikin oroigarri bat urbideak dira, euren izkuntzan akueduktoak. Segobia´n dago bat ederra.

Or erromatarren laburtasun bat agertzen da. Eurak ez ekien ontzi alkartuen legea (vasos comunicantes), ez ekien urak asieran euki eban goierea barriro lortzen dauala, odi baten barruan eroan ezkerro. Era ori ez ekielako egin bear izan ebezan olako eraikuntza arrigarriak, arkuak akuen gaiñean dirala, lurraren gaiñetik ura eroan bearrean.

Sarritan fisikan ikasten diran gauzak alperrekoak dirala uste izaten dogu, baiña ikasi dagigun erromatarren ezjakin orretatik eskolatuak izateak daukan balioa.

OLAZAR´tar Martin´ek



Kalagurri'n Kintiliano'ren oroimenez irudia.